

Teatro

Panta Rhei Antzerkia

KRIM

Otsor Txikia

acercamiento de la naturaleza a los públicos culturales
naturara hurbilduz
kultur publikoak



PANTA
RHEI

Laburpena

Krim Otso Txikia ahuntz bat gehiago zelakoan hazi zen.

Ahuntz amak, bere ama hilda zegoen ondoan jaio berrian aurkitu zuenean, adoptatu zuen Krim.

Krim oso pozik hazi da bere ahuntz-arreba "Ikal"-en ondoan. Baina egun batean, Lord Bronko, otso zahar bat, agertzen da eta bere benetako izaerari leial izatea eskatzen dio. Otsoek ulu egiten diote ilargiari, basoan zehar aske ibiltzen dira eta jateko ehizatzen dute.

Joango al da Krim bere benetako izaeraren bila? Benetako otsoa izango al da? Basoko lagun txiki guztien adiskidetasuna galduko al du?



Musika zuzenean

Aretoko haur-ikuskizun honek antzerkia eta zuzeneko musika uztartzen ditu, ikusleen emozioekin bat egiten duen soin-uibertso bat sortuz. Musikariaren eta instrumentuaren arteko harremana ikertzen jarraitzen dugu, ikuskizunaren zati gisa, bai fisikoki, bai aktoreki.

Bestalde, "kultura musikala" transmititzen jarraitu nahi dugu eta proposamen artistikoa zabaldu, musika klasikoaren kontzertura hurbilduz. Jean-Philippe Rameau-n inspiratuta, naturarekin eta emozioekin lotutako konposizioak aztertu nahi ditugu, zuzeneko akordeoiarekin interpretatuak, obraren narratiba indartzen dutenak.

Zuzeneko musikak konexio emozional paregabea eskaintzen digu: interpretearen ahalegin fisikoa eta sentsibiltatea denbora errealean transmititzeko aukera ematen digu, istorioaren eta ikusleen arteko zubi emozional bat sortuz eta giro multisentsorial batean murgilduz.

Gure publiko gazteak musika-lotura hori alderdi bihozberatik sentitzea nahi dugu, interpreteak publikoarekin komunikatzeko egiten duen lana (esfortzu fisikoa, kontzentrazioa eta sentsibiltatea) hauteman dezan.



Gaia

Krim Otso Txikiarekin animali ongizateari eta natura basatiaren eta bizikidetzaren arteko orekari buruz hausnartzera gonbidatzen ditugu haurrak.

Gure lanak funtsezko galderak aztertzen ditu: zer esan nahi du norbera izateak?, nola eragiten dute espektatiba sozialek?, eta nola aurkitu gure lekua munduan gure esentzia galdu gabe?

Badakigu animaliak jostalariak, bromazaleak, irribarret direla; batzuetan basatiak, tranpatiak, gezurtiak, baina era berean maitekorrak, malenkoniatsuak, edo are hunkigarriak, estrategikoak eta besteen asmoekiko sentikorrak.

Animaliak moral bat errespetatzeko edo kultura bat sortzeko gai dira. Justizia unibertsalaren zentzua izan dezakete? Nola jokutzen dute egoera bidegabea dela ikusten badute?

Animaliak arrazoimena, gizarte-bizitza, emozioa eta hizkuntza duten izakiak dira. Sentsazioak eta emozioak momentuan sentitzen dituzte: koloreak ikusten dituzte eta usainak hautematen dituzte. Ez dute gurea bezalako prozesu mentalik, baina koherentziaren maisuak dira: modu berean sentitzea, pentsatzea eta jardutea.

Proiektu honen bidez, gizakia unibertsoaren erpin hierarkiko gisa jartzen duen eredu bat hautsi nahi dugu. Gizateriaren eta mineral-, landare- eta animalia-erreinuen arteko itun berri bat aurkitu nahi dugu, posizio antropozentrikoa gaindituz eta dimentsio integratzaile eta holistiko bat ezarriz.



A small, fluffy yellow chick with a bright red beak and feet is perched on a light-colored tree branch. The chick is looking towards the camera. The background is a soft, light blue and green wash, suggesting a natural outdoor setting with trees and foliage.

Helburuak

Proiektu honek haurtzaroaren arimari sinfonia moduko bat interpretatu nahi dio tonu, gai, sentimendu, desio eta itxaropen ezberdinak aktibatuz Bizi-energia soziala berritu nahi dugu, bizitzaren zentzua ulertzeko ereduak eta metaforak emanaz.

Bihotzetik eta alegia xume, eder eta on batekin. Arnasa sakonago hartzea eskatuko dizun istorio baten bila gabiltza, gure artean zubi bat sortzeko.

Gure baitan arrazoia eta kontrola denaren eta sentimendua eta intuizioa denaren artean. Titiritero gisa, arimari eta kontzientziari hitz egiten utzi nahi diogu, eta haurtzaroan gizakiaren, naturaren eta unibertsoaren arteko lotura misteriotsua dagoela erakutsi. Lortu nahi dugun pentsamendua da iluntasunaren erresuma, gaizkia, maitasunaren bidez garaitu behar dela, eta ez zigorraren bidez.

Ez zaio gaitzari aurre egin behar, besarkatu baizik, berrerosteko, argiaren zati bat iluntasunean sartzen baita eta iluntasun hau desagertzen da.

Helburua ez da tradizioak markatzen digun bide zaharrea jarraitzea, baizik eta bide berriak aurkitzea, behar den balioarekin, sormena, ontasuna, maitasuna, edertasuna, ugaritasuna, argitasuna, askatasuna, bakea eta alaitasuna lortu arte.

Haurrak inspiratzea umorea, musika eta emozioa uztartzen dituen istorio batekin, gizateriaren eta naturaren arteko elkarbizitza-eredu bat planteatzen duena. Ikuspegi integratzaile batetik, haurrek enpatia, identitatea eta onarpena bezalako balioekin konektatzea nahi dugu.

Pertsonaiak

Animaliekin egindako ipuinak tresna erabilgarriak dira, ulerterrazak eta psikologikoki sakonak. Hizkuntza sinbolikoaren bidez, gainditze, hastapen eta askapen esperientziak, sentimenduak eta nahiak adierazten ditugu. Basoko animaliek jatorri tragikoko irudiak irudikatzen dituzte, eta, beren ontasun eta jakituriaren bidez, haurtzaroari laguntzen diote.

Haurrei otsoa gustatzen zaie, bere "barruko otsoa", bere ni basatiena, baztertzen ari delako. Beraiei "gaiztoak" izatea gustatzen zaie, katuari isatsetik tira egitea, sustoak ematea, hortzak erakustea eta, batez ere, helduei beldurra ematea.

Otsoa tradizioaren, duintasunaren, indarraren eta jakituriaren sinboloa da; talde-lanaren eta, aldi berean, indibidualtasunaren, sakrifizioaren eta balioaren sinboloa. Basoak eta bertako animaliek gure emoziorik sakonena irudikatzen dituzte. Krim, ahuntza bezala hazia, nortasunaren bila dabil, eta Lord Bronko zaharrak, berriz, gizartearen itxaropenak sinbolizatzen ditu. Krim abenturaren bidez, beldurra, sena eta kide izateko nahia bezalako gatazkak aztertzen ditugu, betiere ikuspegi ludiko eta gogoetatsu batetik.





Fitxa Artistikoa

- **Aktore-manipulatzailea:** Unai García.
- **Zuzeneko musika-interpretazioa:** Raúl Jiménez del Río
- **Kozuzendaritza musikala:** Raul Jiménez del Río
Emilio de Pinedo
- **Txotxongiloen eraikuntza:** Taller de Lula, Eva Alonso eta
Idoia Ayestaran
- **Eszenografia:** Emilio de Pinedo
- **Jantziak:** Telarista Urbana.
- **Argiztapen diseinua:** Emilio de Pinedo
- **Arte Diseinua:** Ariel García.
- **ekoizpena eta komunikazioa:** Nahikari Fernández de Pinedo.
- **Diseinu Grafikoa:** Andrea Conde
- **Banaketa:** Idoia Ayestarán.
- **Dramaturgia eta zuzendaritza:** Emilio de Pinedo.

Behar teknikoak

Krim Otso Txikia txotxongilo ikuskizuna da; mahai eta aktore ikuskizuna. Zuzeneko musikarekin.

Publikoa: familiarra eta 3 eta 6 urte bitarteko umeak.

- Formatu ertaina

• **Antzezen-lekuak:** antzokiak eta aretoak. Beste espazio batzuk, hala nola liburutegiak eta eskolak.

- 20 eta 40 cm arteko **txotxongiloak**.

- Hiru **espazio eszenografiko** mahai gainean.

Musika klasikoa zuzenean. Jean-Philippe Rameau

Hizkuntza: **euskera-gaztelania**





PANTA
RHEI

acercamiento de la naturaleza a los públicos culturales
kultur publikoak naturara hurbiduz

